

156. FITXA ARABA – Arabako kontzejuak biziberritzeko planak idazteko dirulaguntzak

Nori zuzendua: Arabako kontzejuak.

Sarbide-esteka: [2025eko deialdia, Arabako kontzejuak biziberritzeko planak idazteko dirulaguntzak emateko - egoitza](#)

Erreferentziazko araudia: [398/2025 Erabakia, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako kontzejuak biziberritzeko planak idazteko dirulaguntzen deialdiari](#)

Eremuak: Lurralde oreka

Zenbatekoa: 374.400 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/08/02

Laburpena

Deialdi hau da Arabako kontzejuak **biziberritzeko planak idazteko gauzazko laguntzetarako**.

Planak idazteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Ingurunearen Garapenaren ekainaren 30eko 7/2022 Legea hartuko da kontuan, bai eta hura garatzeko araudia ere, hau da, Arabako lurralde garapeneko programa eta erreferentziako landa garapeneko eskualde programa.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Arabako kontzejuak biziberritzeko plan estrategikoak idaztea diruz lagundu ahal izango da. Arabako Foru Aldundiak laguntza teknikoa kontratatuko du honako hauetarako:

- Kontzeju onuradunetako herritarren proposamenak jasotzea.
- Kontzejuen bileretara joatea, proposamenak hasieran garatzeko, eta bilera horiek zuzentzea.
- Planak idaztea eta entregatzea.

Laguntzen zenbatekoa

Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren **ehuneko 100eko** dirulaguntza jaso dezake eskaera bakoitzak, eta gehienez ere **7.200 euro**.